

UDAL KIROLDEGIKO FITNESS-MUSKULAZIO EREMURA ABONATUTA DAUDENENTZAKO ARAUAK



1. Nork du abonatu izaera: Barañainen erroldatuta dagoen 16 urtez goitiko pertsona orok zeinak formalizatu baitu bere izen-ematea, onartua izan da, eta dagokion txartela eskuratuta dauka (abonatu izaera egiaztatuko duena); uneko hilabeteari dagokion ordainagiria egunean eduki behar du, eta, ezin du izan ordaintzeke aurreko epealdietako ordainketei dagokion zenbatekorik.
2. Kirol-ekipamenduak erabiltzeko beste norbaiten laguntza jarraitua behar duten haiek beste pertsona batek lagunduta etorri behar dute bere autonomia ahalbidetzeko, baldin eta udal zerbitzuak ez badie bermatzen banakako arreta eskusiboa (eragina baitu horrek guztiak instalazioko gainontzeko abonatuakiko arretan, eta zerbitzuaren funtzionamendu egokiaren kalterako baita).
3. Hilero igorriko da kuoten ordainketa, abonatuak emandako kontu zenbakira. Erreziboak itzultzen dituzten abonatuak istantean debekatuko zaie sarrera, ordainagiri horren zenbatekoa (itzulketak sortutako gastuekin batera) instalazioko arduradunari ordaintzen dioten momentura arte. Zigorra jaso dezakete erreziboen itzulketetan berrerortzen diren haiek.
4. Baja ematea nahi duten abonatuak dagokion inprimakia bete eta aurkeztu behar dute (muskulazioko abonatu izateari uztea).
5. Berrito abonatua izateko, baja eman zenetik ordaintzeke dauden kuota guztiak ordaindu beharko dira, edo, 8 hilabete itxaron berrito onartua izateko.
6. Karneta lapurtu edo galduz gero, berehala jakinarazi behar zaio instalazioetako arduradunari edo kiroletako bulegoari, bulego horietan egingo baitizute txartel berria, dagokion zenbatekoa aldeztatik ordaindu eta gero.
7. Barañaingo Udalak honako eskubide hauek izango ditu: abonatu kopurua mugatzea, eskabide berrientzako sarrera-kuota ezartzea, edo, erroldatugabeen zerbitzua ahalbidetzea.
8. Barañaingo Udalak erabakiko du instalazioak erabiltzeko ordutegia.
9. Karneta beste pertsona bati uzten dionari baja emango zaio berehala instalazioetako abonatu gisa.

10. Aldez aurretiko mediku azterketa egitea gomendatzen die erabiltzaileei Barañaingo Udalak, honek antolaturiko jarduera hasi aurretik. Betiere azterketa hori egitea eska dezake Udalak, egoki baderitzo, ongi arrazoitutako egoeretan.

11. Udalak ez du bere gain hartuko erantzukizunik abonatuak, instalazioak eta/edo ekipamenduak behar bezala ez erabiltzearen ondorioz, izan ditzaketen kalte edo lesioengatik. Osasun arazo larriak dituzten abonatuak egoera hori jakinarazi beharko diote instalazioetako arduradunari, prebentzio-neurri egokiak zehaztu eta erabakiak hartze aldera.

12. Instalazioen gaineko edozein galdera edo zalantza argitzeko jar zaitezte harremanetan haien arduradunarekin, segidako orduetan:

- Asteleheneretan: 8:15-12:30 eta 16:30-21:30.
- Astearte, asteazken, ostegunetan: 8:15-12:30 eta 16:30-20:30.
- Ostiraletan: 8:15-12:30 eta 16:30-19:30 (ostiral arratsalde ez da egongo entrenatzailea ekainaren 15etik irailaren 15era).

ABONATUEN ESKUBIDEAK eta BETEBEHARRAK

Abonatuak eskubideak:

Abonatuak, karneta aurkeztuta, sarrera libre izango dute zerbitzu guztietarako (muskulazio aretoa, areto kardiobaskularra eta sauna), jendearentzat irekita dauden egun eta orduetan betiere.

Abonatuak betebeharrak:

Abonatuak honako eginbehar hauek bete behar dituzte:

- Hileroko kuotaren ordainketa, ezarrita dagoen moduan; abonatuak emandako kontu zenbakira igorritako banku-erreziboaren bitartez.
- Tratu onez eta modu egokian zainduta erabili instalazioa eta bertako zerbitzu guztiak.
- Gainontzeko abonatu edo erabiltzaileekiko begirunea erakutsi, elkarbizitza onerako behar den neurriarekin jokatu.
- Barañaingo Udalak, zuzenean edo instalazioko langileen bidez, ematen dituen arauak edo jarraibideak onartu eta bete.
- Zigorra jaso dezakete indarrean dauden egungo arauak hausten dituzten haiek. Barañaingo Udalak ezarriko du zigorra, gertaeraren larritasun-maila aintzat hartuta, eta txostena egingo du aldez aurretik -kontuan izanda berrerortzerik gertatu den ala ez-; horrek guztiak, ondorioz, abonatuari baja ematea ekar lezake. Arau-hausteak galera ekonomikoa balekar berekin (instalazioko zerbitzuak, altzariak, eta abarren apurtzea edo hondatzeagatik) kalteari dagokion zenbatekoa ordaindu beharko du gertaera eragin duenak, dagokion isunarekin batera, hala balegokio.

NOLA ERABILI INSTALAZIOAK

SARRERA / SARBIDEKO TORNUAK

- . Abonatu bakoitzak bere egiaztatze txartela (karneta) eraman behar du instalaziora sartzeko.
- . Sarbideko tornuak ezingo dira pasa ez gaietik ez azpitik instalaziora sartzeko. Ezin baduzu sartu, atezainarengana jo ezazu argibideak eskatzera.

ALDAGELAK, DUTXAK, ARMAIRUTXOAK

- . Debekatuta dago instalazioan bizarra egitea edo depilatzea.
- . Txanpona sartuta funtzionatzen duten armairutxoak daude instalazioko erabiltzaileentzat.
- . Armairutxo horiek hutsik geratu behar dute egunero, ezingo dira eduki beteta etengabe.
- . Aldageletan gerta litezkeen lapurretak, gauza galtzeak eta abar ez ditu hartuko bere gain Barañaingo Udalak ezta instalazioko arduradunak ere.

MUSKULAZIO ARETOA eta ARETO KARDIOBASKULARRA

Ordutegiak: astelehenetik ostiralera 8:15- 21:45, eta larunbatetan 9:00-20:00.

- . Instalazioak erabiltzeko monitorearen argibideak jaso behar dira; gimnasioko ekipamenduaren erabilera eta funtzionamenduaren gainekoa, bai eta lanerako metodologiaren gainekoa ere. Argibide horiek erabiltzaile bakoitzak jasoko ditu, aurretik monitorearekin adosturiko banakako hitzorduan.
- . Zapatilak aldatu behar dira gimnasia sartzeko, eta kirolerako jantzi egokia erabili behar da bertan.
- . Toalla erabili behar da derrigorrean, higieagatik eta gainontzekoekiko begiruneagatik.
- . Erabilitako material guztia jaso eta bere lekuan utzi, bai makinetan baita barrak eta halterak erabilitakoan ere.
- . Materiala eta ekipamenduak guztionak dira, partekatu itzazu.
- . Gehienezko denbora tarte mugatuta dago hainbat tresna erabiltzeko, errespetatu ezazu.

SAUNAK

Ordutegiak: astelehenetik ostiralera 8:15-21:45, eta larunbatean 9:00-20:00.

- . Sauna barruan toalla derrigorrean erabili behar da.
- . Debekatuta dago sauna barruan edozein motatako produktuak erabiltzea (eztia, krema hidratatzailea, etab.).
- . Derrigorrean dutxatu behar da –eta lehortu ondoren- saunara sartzeko.
- . Erabat debekatuta dago bizarra egitea edo depilatzea (sauna erabili ala ez).

INSTALAZIO HAUEK GUZTIONAK DIRA, ZAINDU ITZAZU.